



Andoaingo Udala



2020-2021 DENBORALDIKO ENTRENAMENDU ETA TXAPELKETETARAKO UDAL KIROL INSTALAKUNTZEN ERABILERA ESKAERA EGITEKO BEHARREZKO BALDINTZAK

Egun bizi dugun egoera ziurgabea eta aldakorra dela eta, 2020-2021 denboraldirako entrenamendu eta txapelketetarako urtero egin ohi diren bilerak atzeratu beharrean aurkitu da Andoaingo Jarduera fisikoa eta kirolerako Udal Zerbitzua. Honen arrazoi nagusiak, Covid19aren kutsatze kopuruaren eboluzioa, honen aurrean agintariak kirol federatu mailan agindu zehatzik ez jasotzea eta ondorioz, epe laburrean kirol praktikarako baldintzak zein izango diren ez izatean laburbiltzen dira.

Hau horrela, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak, Gipuzkoako udalerrietako kirol arduradunak koordinazio bilera bat egiteko deialdia egin zuen abuztuaren 11n. Bertan, udalerrri ezberdinetako ordezkariak, kirol federatuaren eta eskola kirolaren garapenerako arazoak azaldu ondoren, Aldundiko Kirol Zerbitzuak kasu bakoitza zein egoeratan dagoen azaldu zuten.

Kirol federatuari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren honako **“Kirol jarduera federatua hasteko oinarri arautzaileak, 2020-2021 denboraldia.”** oinarri arautzaileari jarraituz, Eusko Jaurlaritzatik zehaztutako *“AGINDUA, 2020ko abuztuaren 19koa, Osasuneko sailburuarena, zeinaren bidez laugarren aldiz aldatzen baita agindu honen eranskina: Agindua, 2020ko ekainaren 18koa, Osasuneko sailburuarena, COVID-19ak eragindako osasun-krisialdiari aurre egiteko beharrezko prebentzio-neurriak buruzkoa, Normaltasun Berrirako Trantsiziorako Planaren 3. fasea gainditu eta gero.”* izango dugu oinarri.

Honen baitan, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza politika saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak argitaratutako *“Entrenamenduak hasteko gida. Kluben funtzionamendu protokoloa – Prebentzio neurriak”* eta *“Lehiaketen protokoloa (konpetizioak eta kirol-ekitaldiak antolatzeari buruzkoa)”* hartu beharko dira oinarri.

Andoaingo Jarduera fisikoa eta kirolerako udal zerbitzuak, gainean dugun 2020-2021 denboraldiko entrenamendu eta txapelketak aurrera eramateko kirol



instalakuntzen erreserbak segurtasunez eta gaur egun indarrean dagoen arautegia errespetatuz egin ahal izateko, honako baldintza, irizpide eta prozedurak ezartzea erabaki du:

Covid19aren prebentzioari dagokionez:

1.- Kirol elkarte bakoitzak bere kirol modalitateari dagozkion ezaugarriei erantzungo dien *Kontingentzia Plan Zehatza* aurkeztuko du. Bertan, dokumentu honi atxikitako “*Entrenamenduak hasteko gida*” dokumentuan ezartzen diren baldintzak bere kirol taldeen funtzionamenduari eta erabiliko diren kirol instalakuntzei nola egokituko zaizkien zehaztu beharko du. Egingo den ekintza bakoitzaren **arduraduna**, **maiztasuna** eta jarraipena egin ahal izateko erabiliko diren **erregistroak** zehaztuz. Honekin batera, kontingentzia plan hau aurrera eramango dela eta honen baitan gerta daitezkeen egoeren erantzukizuna bere gain hartzen duela ziurtatzen duen **erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztu beharko du.

Aipatutako kontingentzia planak gutxienez ondoko hauek jaso beharko ditu:

Funtzionamendu orokorrerako

1. Kontingentzia planean zehaztutako neurriak eta prozedurak betetzen direnaz arduratuko den pertsonaren identifikazioa (ahal denetan osasungintzako).
2. Asteaz zehar entrenamenduetarako orduen planing-a, honakoak zehaztuz:
 - Talde bakoitzaren maila eta kategoria.
 - Talde bakoitzaren asteko entrenamendu egunak eta orduak (zein ordutatik zein ordutara).
3. Planing-ean zehaztutako taldeetako partaide bakoitzaren datuak (entrenatzaile eta bestelako partaideak barne):
 - Izena eta bi abizenak
 - Telefono zenbakia (adingabea bada, bere guraso edo tutore batena).
4. Saio bakoitzean parte hartu duten taldekideen asistentzia erregistratzea gomendatzen da.



5. Elkarteko partaide batengan Covid19aren sintomatologia antzemanaz gero, kirol elkarteak entrenamendu zein txapelketen etena/aldaketa komunikatzea.

Entrenamenduak

1. Talde bakoitzaren kirolari kopuru maximoak adierazi.
2. Taldea instalakuntzan sartu baino lehen elkartzen denean eta instalakuntzaren barruko zirkulazioan hartuko diren neurriak.
3. Motxilak edo bestelako objektu pertsonalak non eta nola utziko diren, kirolarien artean material horiek, ur botila, etab. partekatzeko debekua.
4. Talde bakoitzak kirol materialaz arduratuko den pertsona bat izendatuko du. Bera izango da biltegitik materiala hartu eta bertara bueltatuko duena.
5. Materialen garbiketa eta desinfekzio prozedurak azaldu (noiz, nork, nola).
6. Entrenamenduak atek itxita izango direla, guraso zein ikuslerik gabe. .

Talde teknikoa

1. Osasun-agintariek adierazitako Covid19ren aurkako prebentzio eta higiene neurri orokorren jarraipena egin eta betetzen direla bermatuko dute
2. Kirolariek dituzten bilera teknikoetako segurtasun neurriak adierazi.
3. Talde bakoitzean arduradun bat izendatuko da kirol elkarteko arduradunari eta kontingentzia plan honen arduradunari gorabeheren berri emateko.

Kirol instalazioa

1. Bertan, Udal Kirol Zerbitzuak indarrean duen Kontingentzia planaren neurriak errespetatuko dira beti.

2.- Buruntzaldeko kirol teknikariek uztailaren 27an egindako bilkuran adostutakoa aintzat hartuta, denboraldian zehar entrenamenduetarako ez da aldagelen erabilerarik baimenduko. Txapelketa zein konpetizio ofizialetan, aldagelak kanpoko taldearentzat bakarrik egongo dira erabilgarri. Honen arrazoi nagusia, aldagelen erabileran 1,5 metroko distantzia mantentzeko beharrak, aldagelen



edukiera asko mugatzen duela eta taldeetako partaide kopuruaren murrizketak ezarri beharra eragingo lukeela da.

3.- Buruntzaldeko kirol teknikariek uztailaren 27an egindako bilkuran behin-behinean adostutako proposamena aintzat hartuta, denboraldian zehar egingo diren lehiaketak ikuslerik gabe izan beharko dute. Erabaki hau, Eusko Jaurlaritzak txapelketetan ikusleei sarrera baimentzeko ezarritako baldintzak, Buruntzaldeko kirol elkarteek betetzeko ezinezkoak direla baloratuta hartu da.

4.- Dokumentu honetan jasotako betebeharrak, baldintzak..., aurrerantzean sortu daitezkeen legezko agindu berrien arabera aldaketak jasan ditzakete.

Orduen erreserba eskaerari dagokionez:

Lehenik eta behin, kontuan izan behar da Covid19ak eragindako egoera ziurgabea eta aldakorra dela eta, hasera batean, 2019-2020 denboraldian izandako ordutegiak mantentzen direla aurtengo denboraldirako. Dena dela, elkarteren batek 2019-2020 denboraldikoarekiko murrizketarik izanez gero, adierazi zein ordutegi libre utziko litzatekeen.

Entrenamendu/txapelketetarako aurkeztutako taldeen partaideen datuak benetakoak eta behin betikoak direla kontsideratzen da. Orain emandako datuetan, entrenamendu/txapelketa aldia hasi baino lehen, zein entrenamendu/txapelketa aldian zehar aldaketarik ematen den momentuan, kirol elkarteak 5 eguneko epea izango du Udala Kirol Zerbitzuari jakinarazteko.

Talde bati buruz emandako datuak egiazkoak ez direla antzematen bada, Udala Kirol Zerbitzuak kasuaren azterketa egin ondoren, izandako ondorioak baloratuta, talde honi erreserbarako eskubidea kendu ahalko dio.

Ordutegiak gainditu edo aldatzeko beharrak, tokian tokiko bileretan aztertu eta erabakiko lirateke.